



TXIRRITXOLA

14. ZENBAKIA 1995.EKO EKAINA. BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

BAKIO, GURE GAIA!



Lerro hauetatik, Euskera Batzordeak gai garrantzitsu bat plazaratu nahiko luke:

NOLA HAUNDITU GURE HERRIA,
NOLA INDARTU GURE BIZTANLEGOA,
NOLA PIZTU GURE IZAERA.

Sail zabala berau **TXIRRITXOLA**-ko ale batean aztertzeko, baina jendearen, herriko taldeen edo agintarien eritziak bildu nahian, horra hor gure lanari hasiera. Ea denon artean konponbideak aurkitzen ditugun.

Bakiori begirada sakonik bota beharrik ez dago bere etxe itzel edo berriez ohartzeko. Baina, zein da beraien helburua? Batzuek "monstruo" izugarriak diruditen bitartean, udako etorkinen pilaketarako; besteek herri iraunkor bat egitekotan eraiki baziren ere, gaur gehienak udan edo asteburuetan bakarrik betetzen dira. Beraz, etxebizitzak bai, baina norentzat? Hori da gure leloa. Bitartean gure herria hustutzen ari da, lan bila hasieran, etxe bila geroago, abar eta abar.

Hauteskunde garaian sarri entzuten ditugu aipamen orokorrak, lanari buruz, Eskolari buruz, etxebizitzei buruz ere, eta inork ez dio ekiten lan honi.

Nola sortu dezakegu lan iraunkorra Bakion?

Nola etxebizitza merkeak jendea bertan gera dadin?

Nola hobetu garraioak?

Nola indartu irakaskuntza eta gainerantzeko zerbitzuak?

Ez al da guzti hau "paseo maritimo" (proiektuan dagoena) bat, bi edo hiru hilabetetan aprobetxatuko dena eta 800.000-ko presupuestoa eramango diguna baino garrantzitsuagoa?

Eman diezaigun azterketa honi behar bezalako arreta, bestela Udako turismoa eta Neguko loa geratuko zaizkigu.

**(Oharra: Artikulo honek ez du ez Udala ez alderdiak mintzeko asmorik, aurrean esan bezala eritziak eta irtenbideak proposatzea litzateke bere asmoa.)*

AURKIBIDEA

2.- Herri taldeak. Bakio K.T.

3.- Herri taldeak. Eskola.

4.- Herri taldeak. Pilota. Dantza. Abesbatza.

5.- Ipuina. Idazlan lehiaketan sariduna (11-14 urte tartean)

6.- 8. mailakoak:

Bakioko eskolari agur.

7.- Bakion euskaraz?

8.- Lehiaketa mundiala.

Denbora pasak

ATZOKO EGUNA, EGUN ILUNA

NAGUSI IZAN ZEN NEGARRA.

GURE BITORTXUK ALDE EGIN DIGU

ZORITXARREKO EZBEHARRA.

ADISKIDE ONA, LAGUN APALA,

IKASLE GISA KASKARRA,

SAL TSA GUZTIEN BEDARRA,

MAITE ZENDUN ASKO FARRA, (bis).

AHAZTUEZINA, IRRIBARRETSU,

DANTZARAKO ZENDUN GARRA

GURE ARTEAN BETIRAKO HAIZ,

ZAZPIKOTEAREN IZARRA! (bis)

Bitortxu, ez agurrik, gero arte baizik!



HERRI TALDEAK




BAKIO K.T: AURTEN BAI!

INFANTIL MAILAKO TALDEA
TXAPELDUN!

Entrenatzailea: IÑAKI IMATZ.

Golegile nagusia: JAVI PINES, 60 gol.

Lezamara deituak: JAVI PINES eta
ALBERTO LOPEZ.



BAKIOKO FUTBOL ESKOLA

40 gazte futbolean ikasi nahian,
zenbatek lortuko dute?

Aholkuak badituzte, entrenamenduak
ere bai.

Sakrifizioa norberak jarri behar du eta
bortitzenek lortzen dute helmugara
heltzea.

Entrenatzaileak: IÑAKI IMATZ, JOSE
MARKAIDA eta PATXI OREGI.



TXAPELDUNAK!

Regional Preferentera,

Entrenatzaileak: JULEN URANGA eta
ANDONI LAZARO.

Eta orain zer?

ORAIN EUTSI!

Nola?

Zure laguntzarekin.


BAZKIDETU ZAITEZ!

HERRI TALDEAK

URKITZA IKASTETXEA: IKASI ETA KIROLA EGIN HERRIKO ESKOLAN

Nahiz eta irakaskuntza arloan gure herriko eskolak oso nibel ona erakutsi, (emaitzak aztertuz eta beste ikasteetxekin konparatuz) Guraso Elkarteak beti pentsatzen genuen hutsune bat zegoela gure eskolan kirol arloan eta batez ere, neskak ziren, gure ardurarik nagusietariko bat, zeren mutilen bi ekipo zebiltzaten futbitora jolasten. Baina gauzak aldatu egin dira eta gaur egunean neskak dira nagusi kiroletan eta kirol erregea boley-ball da eskolan.

Eta, nola gertatu da hau? Ba futbitora zebiltzaten mutilak, Bakioko futbol taldean daude eta atzetik zetozen haurrak, gehienak neskak ziren, honela gauzak, Aritza, herriko mutil aditu bat, saski baloi talde bat osatzen ausartu zen. Era berean Aitor monitorrak boley-ball-eko talde bat atera zuen.




Guraso Elkartekook, osasuntsu ikusten dugu, gaur, gure eskola. Arrisku batzuk ere badaude, umeen jaiotza gutxitu egin delako eta oraindik guraso batzuk nahiago dutelako herritik kanpoko irakaskuntza.

Norbaitek baloratu beharko du gure herriko eskola indartzea edo gutxi gutxika desagertzen uztea merezi duen.

Ez daigun denbora gehiago pasatzen utzi, denborak bere epaia eman duelako jadanik.

Bakioko Guraso Elkartea



Boley-ball-eko talde alebina (11 urte) 5.gn. Liga Txapelketan.

Entrenatzailea: Aitor monitorra.




Bolley-ball-eko talde infantila (12-13 urte) 3.gn. Liga Txapelketan. Entrenatzailea: Olatz Busturia.



Futbitoko taldea (neskak eta mutilak nahasean).

HERRI TALDEAK

"ALAITASUNA" PILOTA TALDEA



Ezer azaldu baiño lehen, zorionak eman nahi genizkiok "Txirmitxolaren" bitartez, kirol barruan gure anai nagusiari (Futbola, hain zuzen), aurten, 94-95 denboraldian lortutako

emaitzengatik, bai ume zein heldu mailan. Pelotari dagokionean, harro gaude ere, "Alaitasunakook" aurten ahal izan dugun lanagatik, batez ere, umeekaz; Aipatu beharra dago, hasieran pentsa genuen baiño ume gehiago etorri zitzaizkigula, 4 urtetik-12ra bitartekoak, heuren artean zenbait neska zirelarik, Esan bezala gure eronkarik nagusiena Berangon buruturiko pelota ekitaldia izan da (Urrian hasi eta Otsailean amaitu), neska-mutilak nahasian jokatzuz, sexu ezberdintasuna, trebetasuna, urte-jokoak ematen duen maisutasuna edo beste herrietako eskupilota eskola esperimintatuen nagusitasunak lotsa erazi barik.

Orain, umeekaz amaitzen ari garenean (ez ordea helduek) hasieran proposaturiko lana bukatu barik geratzen zaigula, konturatzen gara, izan ere, "paleta" lantzea izan zen gure bigarren helburua, baiña alde batetik Aste Santuko oporrak ta frontoi konponketak bestetik atzeratu gaituzte. Beraz, datorren urterako utzi beharko dugu, halan baderitze.

Frontoi konponketak aipatu ditugun ezker, bizpahiru gauza esango genituzke, batetik, begi onez ikusten ditugu frontisan egindako konponketak, pala "laburraren" lehengo kolpeak ondo eusten ditu eta; Era berean, goiko sarea igotzeak joko posibilitate gehiago eman du. Bestenik ez zaigu ondo eritzi behin aurreko homa margoztu ezker albokoa ere ez egitea, ez eta euri sarrerak edo behea hurrengo baterako utzi beharra... agian.

Antza denez, azken hauentzako ez da egon dirurik. Dena den, komentario honekin pentsatzen dugu, komeniko litzatekeela diru kopuru bat instalazioen mantenimenduan erabiltzea ta hau luzatzen dugu herrian dauden guztietara, ze ikustea baiño ez dago Bakean dauden futbito ta saskibaloiko zelaia ze egoeratan dauden, apur bat ez jagoteagatik, hots, atzo eginikoa gaur ia ez du balio.

"Alaitasuna" pilota taldea

"ITXASALDE" DANTZA TALDEA

Itxas-Alde taldeko gazte nagusiak Tarragonara joan gara, Apirilaren 29tik Maiatzaren 1a arte, Euskal folklorea eta kultura erakustera; igaz, "Esbart Dansaire de Tarragona" taldea, Bakion izan genduanaren ordez. Gugaz batera, Cabezón de la Sal (Cantabria) herriko dantza taldea egon zan ere.

Lehenengo egunean, eguerdi inguruan, Tarragonako Udalean harrera ofiziala egin euskuen, eta opariak banandu ondoren, dantza bat aurkeztu gendun. Arratsaldean, Cabezón de la Sal eta Tarragonako taldeakaz batera, kalejira luze bat egin gendun, gure musika eta dantzak eskeiniz.


Hurrengo egunean, domeka goizean, Tarragonako alde zaharra erakutsi euskuen, eta, bertako harresi eta erromatarren aztarnak urian. Arratsaldean, Udalaren aurrean, hiru taldeek gure ekitaldia egin genduan, arratsaldeko 7tik gabeko 10arte.

Astelehenean Bakiorantza bidean, Zaragozan atsedena eginez, "El Pilar" eko basilika ikusi eta bazkaldu egin genduan bertan.

Bidaia hau oso interesgarria izan da, eta egin doguzan guztiak legez, guztiz aberasgarria. Beraz, gure helburuetariko bat beti izango da beste talde batzuek hartuemon.

Udara begira, badoguz beste proiektu batzuk ere. Atzerriko talde bi ekarteko asmoa dugu, Uztailaren azkenengotarako: Italia eta Mexikoko dantza taldeak dira. Bakioko familien artean biziko dira lau egunetan, euran folklorea eta kulturaren nortasunaren barri izanez gure artean.

Gure moduko talde baterako ardura eta zeregin handiak suposatu arren, pozik eta ilusio handiz egiten doguz prestakuntzak. Eta ondorioak danon gustokoak dira.



BAKIOKO ABESBATZA



Bakioko Abesbatzak Galiziar lurraldera bidaiatu zuen, Vigoko Casablanca korralaren gonbidaketari erantzunez, Apirilaren 13tik 17ra bitartean.

Helburua, hizkuntza eta kultura elkarraldatzeaz aparte, bi kontzertu eskeintzea izan zen: bata; Vigoko "Centro Mercantil"-ean, eta bestea, "Becerreira" zentro kulturallean.

Gure gonbidatzaileek ongietorri berotsua, bikaina eman ziguten eta horregatik eskerrak ematen dizkiegu. Bidaia oso onuragarria izan zen.

IPUINA

IDAZLAN LEHIAKETAN SARIDUNA (11-14 tartean)

"Erreglamenduko pilota baten pentsamendu, maitasun eta tribulazioak."

Kaixo irakurle maite hori:
Ni nor naizen jakin nahiko duzu, ezta? Bani, Barçaren erreglamenduzko pilkota bat naiz, eta, nahiz eta dozenaka pilota dituzten, nirekin jolasten dituzte Camp Nou Bartzelonako futbol-zelaian jokatzen dituzten partidu guztiak. Asko maite banaute ere, a ze nolako jipoiak jasotzen ditudan!

Denek ematen dizkirate ostikadak. Moeta askotakoak izan ohi dira; orpoarekin, oinaren alde batekin... Baina mingarrienak punteroiak izan ohi dira. Jokalaria prestatzen da: Bi-hiru metrotara jartzen da, korrika hurbiltzen doa, segundu gutxi dira, niretzat mendeak. Azkenean, konortea galtzen dut. Esnatzen naizenean, gehienetan porteria nago. Jokalariak ikusten ditut, korrika egiten, zoroak bezala, pozik, saltoka. Orduan arraro sentitzen naiz. Pozik nago, bai, egia da. Baina beste sentimendu bat ere badaukat barnean. Triste nago, gaizki sentitzen naiz, denek ahaztu egiten naute. Baina batzutan badago jokalariren bat, oso errukitsua iruditzen zaidana, handik hartu eta besoetan narama, berarekin pozik egotera eta gol hori ospatzera. Orduan ondo sentitzen



naiz, ez daukat dudarik: maite naute, asko gainera. A ze poza.

Orduan dena dago ondo, bizi guztia arrosa kolorekoa da, ez dut zalantzarik. Gainera, hamabigarren jokalaria maite nau, ikusleek maite naute. Ez dudala maitalerik? Zertarako balio du hainbeste jendek maite zaituztenean? Ez du ezertarako balio!

Baina jokua noizbait bukatuko da, eta hori pentsatzen... Hobeto ez pentsatu.

Baina pentsatu egin behar da. Eta egiten dudanean, pentsatzen dut ez dudala inoiz inor edo ezer edukiko esateko: maite zaitut, ene maitea. Zure begiak, bi laku urdin ederrak dira, haietan murgiltzen naizenean, ez nuke inoiz haize hartzera atera nahi. Zure sudurra mandi tontor goren bat da. A ze ezpainak zureak! Gorriak, biziak, hain leun eta zapoetsuak...! Zure ilea, hain beltz eta harroa...! Zu guztia, ene Venus maitea, gurtzen dut, eta zuk nahi bazenu, nire izaera guztia emango nizuke, zu asetu arte. Baina ez daukat inor, inor, ezer, ezer...

Espero dut noizbait ene etsipen hau desagertzea maitasun oso eta luze bati leku uzteko.

IKASLEEK ESKOLARI AGUR



8.gn. mailako Taldea.

ESKOLAN BUKATUTA
A ZE ERREMEDIO;
ORAIN AGURTZEN GARA
BERTSO HAU MEDIO,
BERAREKIN ESKATU
ZUEN AMODIO,
EZ DIZUEGU ESATEN
BETIKO ADIO.



BELLOCH EDO BORRERUAREN GRAZIAK

Meritu handiko gizona dugu "Justizia" eta "Interior" Ministro Jauna. Gatxa zen bere karguan aurretik egondakoen izenak ahaztu-eragitea; Fraga, Rosón, Corcuera, edo Barrionuevo ez ziren makalak izan, baina berau fitxaje hobea da.

Orain urte batzuk, Bilbon epaile aritzen zenean, behin eta berriz esaten eban torturak zigortu, GAL auzia argitu.... egin behar zirela, a! Eta intsumisoak kartzelan ikusteaz lotsatzen zela. Baina behin poltrona gozoan jezarri denean, aurreko guztiak mauka-mauka jan, eta argi berria ikusi dau.


GALi buruz ez dau ezer jakin gura, bere menpeko torturatzaileak indultatu eta saritzen dauz, eta kartzeletan dagozen intsumisoengatik ez da lotsatzen, are gehiago, kartzela barruan denbora gehiago egon daitezeneren alde dago; beragatik balitz 3 urtera arte edukiko leukez gerizpetan. Normala da; intsumiso gaizto honeek ez dabe ejerzitorea oporretan joan gura, ez eta espania handi eta batua defendatu, ez PSS den zigorra bete, gizon ere ez ei dabe gura izan... marikoiak!

Eskerrak Capitan Trueno zenaren ispiritua berbiztu denari. Buru askoko gizonkote honek salbatuko gaitu, eta ardi galdu okerrak kortara sartu. Demokraziaren izenean, bazen garaia!



BAKION EUSKARAZ?

% EZAGUTZA



Bakioko euskerak udaldietan aldaketak ditu: Herrira datozen udatiar gehienek ez dakitenez euskeraz, erdera nabarmentzen da toki guztietan. Beraz udatiarren eragina haundia dela esan dezakegu.

Baina, hori al da arazorik nagusia Bakiotarrentzat? Ez.

Neguan ere euskera gutxi egiten da Bakion. Etxeetan pixkat, baina kalean, lagunaren artean, dendetan, gutxi edo ezer ez. Guraso euskaldunak ere sarritan, seme-alaben kutsaduraz edo, erdera egiten dute borborka.

Eskolan euskeraz irakas-ikasten da, baina aldi honetan, jolas aldietan, etxeetan etabar erdera darabilte eskola umeez barra-barra.

Beraiek ote dira errudunak? Ala nagusien mundua ez ote da errudun?

Kanpotik gure herrira euskera ikastera edo hobetzera datorren edozein pertsonak, eukiko ote luke aukerarik hemen ikasteko?

Erantzun diezagun geure buruari eta erantzuna ezetza balitz alda ditzagun geure giltzak.

Datoen arabera posibilitatea dugu herri euskaldun bat izateko, zeren ezagutu, gehiengoak ezagutzen dugu.

Euskaraz hobe

Oraingo honetan, udaren atarian, ez goaz eredu gramatikalik aipatzera, ez eta esakunerik jorratzera; ikasturtea ia joan jaku eta eskatzen deuskun balantzea egin beharko deutsugu. Aurten 20 bat lagun aritu dira euskara lantzen Bakion, batzuk behetik hasita, beste batzuk osteraren heuren maila findu guran. Ikasgela txukunak izan doguz behar egiteko, eta apurka apurka bagoaz urratsak emoten, lankidetzaz lortzeko bidean.

Baina hutsune handi bat igartzen dogu. Bakioko %30ak ez daki euskaraz, baina asko gehiago dira euskal kulturaren zati handi bati bizkarra* emonda bizi direnak; ez dira gauza "Egunkaria" irakurri*, B. Lertxundi edo Oskorriren kanta bat ondo ulertu edota Euskal Telebista ganoraz jarraitzeko*...

Badago aukera alfabetatzeko, eta bada sasoiak. Ez daigun ahaztu, ez txapelak, ez txistuak, ez RHak, ez eta "Gora..." zerrenda luzeak; euskarak soilik* egiten gaituela euskaldun.

Badatoz oporrak eta Bilbotar andana* geurera; ongi-etorriak izan daitezela baina igarri daitela Bakio Bilboko auzoa ez dela; ikus daitela geurea herri euskalduna dela, geuk nortasuna badaukagula... eta ondo pasa!

ZER eta ZELAN:

- 1 - HIZKUNTZA
 - 1.1 Bizkaieraren sintaxi-erazugarriak.
 - 1.2 Aditz morfologiaren ardatz nagusiak.
 - 1.3 Lexikoaren berezitasunak
 - 1.4 Fonetika erazugarriak.

2 - LITERATURA

- 2.1 MOGUEL, Juan Antonio.
"Peru Abarko" (lehen atala).
- 2.2 URKIAGA, Esteban, "LAUAXETA":
"Oraingo Maitarijak".
- 2.3 ARESTI, Gabriel:
"BIZKAITARRA I".
- 2.4 HERRIKANTA:
"Jaun Zuriano" (Hiru Trukuk joo).

IRAKASLEAK:

ANGEL ZELAIETA
JONJO AGIRRE

MATRIKULA:

4.500 pta.
Izen emotea Bakioko
Udaletxean

*Bizkaiera eta
Literatura
Bizkaieraz*

NOIZ eta NOLA:

- 1.- LAN ORDUAK: Parte hartzaileen artean erabakiko dira.
- 2.- LAN EGUNAK: Uztailako martitzen, eguasten eta eguen guztiak.
- 3.- LAN LEKUA: Udaletxe Zaharrean.
- 4.- IZEN EMOTEA: Ekainaren 30era arte.

NORENTZAT:

Euskaraz alfabetatuentzat.

Antolatzailea:

BAKIOko aek

Laguntzailea:

BAKIOko UDALA

LEHIAKETA MUNDIALA NEKAZARITZA

1.- Zein da mahatsa inausi eta biltzeko garaia?

- Inausi
- Bildu

2.- Zeintzuk dira Bakion Txakolina egiten duten baserriak?

3.- Zenbat denbora behar da, mahatsa zapaltzen denetik, txakolina botilatu arte?

4.- Noiz ematen da intxaurrondoaren loratzea?

5.- Zein hilabetetan ekiten diote baserritarrek piper gorri zein berdea landatzeari?

6.- Zein da Bakion gehien ematen den laborea?

7.- Ematen al da Bakion babarik?

8.- Zenbat patata mota daude? Zeintzuk dira? Zeintzuk dira patata gehien biltzen diren hilabeteak?

9.- Zeintzuk dira urtean zehar Bakion ematen diren hiru barazki?


10.- Zein da baratzuriaren gaixotasunik arruntena?

HIZKI SALDA

BILA ITZAZU ZAZPI FRUITU

M	E	L	O	I	A	S	D	E	L	Z
A	U	P	L	A	T	A	N	O	A	T
D	M	I	N	H	O	G	N	R	R	U
A	S	K	E	L	P	A	M	K	A	M
R	K	O	F	I	F	R	U	P	N	X
I	B	A	L	R	K	R	O	I	S	M
A	D	M	R	Z	D	A	X	O	A	E
F	H	N	B	K	S	U	H	K	T	J
J	G	E	R	E	Z	I	A	H	B	O

GURUTZEGRAMA



Ezkerretik eskumara:

- Espaziuntzian lurretik beste astroetara bidaiak egiten dituen pilotoa.
- Lau gurpil izanda pertsonak eramateko erabiltzen dena.
- Zaldia baino txikiago den zamari apal belarri luzea.
- Sendagaiak saltzen direneko tokia.

Goitik behera:

- Maitasunaren adierazgarri egiten diren laztanak.
- Objetu txikien ikuspena, tamainuz izugarriro haunditzeko aparailua.
- Buruko gonbaraketa bidez hitz batean esanahia beste batengana aldatzeari deitzen zaio.